EHU



# Berritasunak eGela 26/27

eCampus

# Aurkibidea

Moodle bertsio berriak dakartzan nobedadeak ..... 3
Ikastaroaren antolaketa ..... 3
Dauden elementuen artean edukiak gehitzea eta ikono berrien ..... 3
Ekintza masiboen menua ..... 3
Baliabide/jardueretan lasterbideak ..... 4
Atalak eta azpi-atalak ..... 5
Testua eta multimedia eramua" baliabidearen izenburua aurkibidean ..... 6
Galdetegiak eta galdera-bankua ..... 7
Galdetegi batean galderen zenbakiak editatzea ..... 7
Irakasleek Galdetegi batean galdera-taldeei kalifikazioak eman diezazkiekete ..... 7
"Gordetako azkena" adierazle automatikoa ..... 8
Berriro kalifikatu saiakerak: kokapen berria eta Berriro kalifikatu espezifikoa ..... 8
Galdera-bankua ..... 8
"Arrastatu eta jaregin" (drag and drop) galdera-kategoriak antolatzeko ..... 9
Berrikuntzak beste jarduera eta baliabide batzuetan ..... 9
Zereginak ..... 9
Iragazkien kokapen berria eta kalifikazio azkarraren aukera ..... 10
Liburua ..... 11
Datu basea ..... 11
H5P, edukiak bikoiztea "Edukien bankuan" ..... 12
Taldeak eta ikusgarritasun aukerak ..... 12
Kalifikazioak ..... 14
Aldaketak kalifikatzailearen txostenean ..... 14
Aldaketak kalifikazioen ezarpenetan ..... 14
Baliogabetutako kalifikazioen marka ..... 15

Honako eskuliburu hau Universidad del Pais Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du. Eskuliburu hau eta eCampus-eko gainerako eskuliburuak web orritik deskarga daitezke https://www.ehu.eus/eu/web/ecampus/eskuliburuak

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.eu helbidean

# Moodle bertsio berriak dakartzan nobedadeak

Moodle-ren bertsio berri honen berritasun nagusiak, ikastaroaren orri nagusiaren antolaketarekin eta edizioarekin dute zerikusia: hainbat elementu hauta daitezke "ekintza masiboak" egiteko, lehendik daudenen artean edukiak gehi daitezke eta ez atal bakoitzaren amaieran, atal bakoitza bereizita bistaratu daiteke, azpiatalak gehi daitezke eta baliabideak eta jarduerak identifikatzen dituzten ikonoak aldatu dira. Orrialde nagusian aipatutako hainbat elementu aldi berean hautatzea eta editatzea beste funtzionalitate hauetan ere aplikatzen da: zereginen "Bidalketetan, galdera-bankuan eta kalifikazio-liburuan.

## Ikastaroaren antolaketa

### Dauden elementuen artean edukiak gehitzea eta ikono berrien


Bertsio berri honetan, posible da bi elementuren artean **jarduerak edo baliabideak** (1) **gehitzea**. Gainera, **Azpi-atalak** (2) ere gehi daitezke.

Gainera, **ikono berriek** (3) aukera ematen dute baliabide edo jarduera mota hobeto identifikatzeko.





### Ekintza masiboen menua

"**Ekintza masiboak**" (1) aukerak, edizioa aktibatuta dagoenean, hainbat **jarduera edo baliabide** (1.1) edo **zenbait atal** (1.2) hautatzeko aukera ematen du, eta horiei **ekintza masiboen barran** (2) dauden aukeretako bat aplikatzeko: Eskuragarritasuna (Erakutsi edo Ezkutatu), Bikoiztu, Mugitu edo Ezabatu. Aukeratutako ekintza **eskuinaldean dagoen zeinuaren gainean sakatuz**(2.1) ezezta daiteke.





## Baliabide/jardueretan lasterbideak

Baliabide eta jardueretan lasterbideak azaltzen dira oraingoan Eskuragarritasuna, jarduera amaitzeko baldintzak eta talde-modua editatzeko. "Erabilgarritasuna" aukera "Erakutsi ikastaro-orrian" ez denean, egoera adierazten duen oharrak (1) egoera aldatzeko aukera ematen duen menua erakusten du (1.1). Era berean, "Osaketa" baldintzak egonez gero (2), menu zabalgarri batek "Baldintzak editatzeko" aukera zabaltzen du (2.1). Talde-modua ere ikono batekin erakusten da (3). Horren gainean sakatuz gero, koadro bat irekiko da konfigurazio hori aldatzeko aukerekin (3.1). Ikono honek gainera, egoeraren izena erakusten du sagua pasatzerakoan (3.2).




Eskuragarritasuna mugatzen denean, **editatzeko** lasterbide bat ere agertzen da (1). Gainera, murrizketa bat baino gehiago badaude, tolestuta geratzen dira, eta horiek zabaltzeko aukera bat agertzen da "**Erakutsi gehiago**" sakatuz (2).





## Atalak eta azpi-atalak


***Atal bakarreko orrialdeak***
Atal baten izenburuaren gainean, aurkibidean edo orrian klik eginez gero, edizioa desaktibatuta dagoenean, atal horretako edukia erakutsiko da bakarrik (1). Gainera, atala *ogi-apurren bidean* ere azalduko da (2).




***Atalen ezarpenetan aukera berriak***
Atalaren menuan (hiru puntutxoak) **Ikusi (1), Bikoiztu** (2) eta **Esteka iraunkorra** (3) aukerak agertzen dira.





***Azpi-atalak***
Edizioa aktibatuta dagoela, azpiatal bat gehi daiteke + (1) zeinua sakatuz eta, ondoren, "Azpia-tala" (2) sakatuz.




### "Gai-formatua" aukera "Atal pertsonalizatuak" bilakatzen da

Ikastaroaren ezarpenetako "**Ikastaro-formatua**" (1) atalean, "Gai-formatua" aukerak, ikastaroetan lehenespenez aplikatzen edo ezartzen denak, izena aldatzen du eta "**Atal pertsonalizatuak**" (2) izena hartzen du, funtzionamenduan aldaketarik izan gabe.




### Testua eta multimedia eramua" baliabidearen izenburua aurkibidean

"Testua eta multimedia eremua" baliabideak ("Etiketa" aurreko bertsioetan) aurkibidean sartzen dira. **Izenburuaren eremua hutsik utziz gero** (1), **testu-eremuaren hasiera** (2) hartzen du. Testurik ez badago, baliabide motaren izena jartzen du.




# Galdetegiak eta galdera-bankua

## Galdetegi batean galderen zenbakiak editatzea

Galdetegi bateko "Galderak" atalean, galderen zenbakiak edita daitezke, galdera bakoitzaren kutxan **edizio-ikonoa** (1) sakatuz.


OHARRA: Zenbakietan egindako aldaketak une batez desagertzen dira orrialde-aldaketa bat egiten denean, baina berriro agertzen dira orrialdea kargatzean.




## Irakasleek Galdetegi batean galdera-taldeei kalifikazioak eman diezazkiekete.


"Galderak" atalean aukera ezberdinak dituen menu zabalgarri bat dago. Aukera horietako bat "**Kalifikazio-elementuen konfigurazioa**" (1) aukera da. Bertan, "**Gehitu kalifikazio-elementua**" (2) sakatuz "**elementuak**" (2.1) sortzeko aukera eskaintzen da. Orrialde honetan bertan, beheko aldean, galdetegiko galderen zerrenda bat dago, **non galderak elementuei esleitu ahal zaizkien** (3).

"Elementu" bakoitzaren puntuazioa esleitutako galdera-kopuruaren araberakoa da.





**"Ordenatzea" galdera-mota berria**

Galdera-mota berri honek elementuak ordenan jartzea eskatzen du. Elementuak bertikalean jar daitezke, irudian bezala, edo horizontalean.





### "Gordetako azkena" adierazle automatikoa

Ikaslea galdetegi batetako orrialde berean mantentzen den bitartean, azken (1) gordetze automatikoa noiz egin den erakusten da. Datuak minutuero gordetzen dira.




### Berriro kalifikatu saiakerak: kokapen berria eta Berriro kalifikatu espezifikoa

Galdetegiaren "**Emaitzak**" (1) atalean, "**Berriro kalifikatu saiakerak**" (2) aukera saiakeren taularen azpian dago orain. Aukera horren gainean sakatzean, **leiho bat irekitzen da** (3), eta, bertan, saiakerak "Berriro kalifikatzea" zehazteaz gain, galderak ere hauta daitezke.





**Orokorrean kalifikazio-tarte ezberdinak lortzen dituzten ikasle-kopurua**

### Galdera-bankua

Galdera-bankuan bilaketa eta iragazpena hobetu dira.


***Irakasleek zutabeak ezkutatu, kendu edo tamainaz alda ditzakete galdera-bankuan. "Galdera-banku"****ko* ***(1)*** *zutabeak* ***"Mugitu, Kendu edo Aldatu tamaina" (2)*** *egin daitezke.* Tamainaz aldatu diren zutabeak ***"Gehitu zutabeak"*** menuan berreskura daitezke ***(3).*** Zutabeak ***berrabiarazi*** daitezke baita ***(4).***

Irakasle batek galdera-bankuko taulan egindako aldaketak bere irakasgai guztietan islatzen dira, baina ez du eraginik izango irakasgaia partekatzen duen beste irakasle batengan.




### "Arrastatu eta jaregin" (drag and drop) galdera-kategoriak antolatzeko.


Kategorien ordena edo hierarkia **ezkerreko kontrolagailuak** (1) edo **menuko aukerak** (2) erabiliz alda daiteke.




## Berrikuntzak beste jarduera eta baliabide batzuetan


### Zereginak

Aurreko bertsioetan "Kalifikazioa" botoiaren ondoan zegoen "Ikusi bidalketa guztiak" taularako sarbidea lekuz aldatu da, eta orain goialdeko barran "**Bidalketak**" (1) eremuan aurki daiteke.





### Iragazkien kokapen berria eta kalifikazio azkarraren aukera

Iragazkiak (1,2,3) eta kalifikazio azkarra (4) goiko aldean integratu dira, "Ekintzak" menuarekin batera.





"Bidalketak" taulan, **erabiltzaileak aukeratu** (1) eta pantailaren **beheko aldean azaltzen den barrako** (2) aukerak aplika daitezke.





## Liburua

Liburuen arteko nabigazioa intuitiboagoa da: geziak gehitu dira **atzerantz** (1) eta **aurrerantz** (2) joateko. Horrela, aurkibidea agertzen zen eskuineko alboko panela ezabatu da.




## Datu basea

Sarreren esportazioek fitxategiak ere izan ditzakete





### H5P, edukiak bikoiztea "Edukien bankuan"

"**Eduki-bankua**"ko (1) H5P eduki bat irekitzen denean, aukeren menuan kopia bat sortzeko aukera gehitu da, "**kopiatu edukia**" (2) .




## Taldeak eta ikusgarritasun aukerak


**Taldea**k sortzeko formularioan (1) "Talde partaidetzaren ikusgarritasuna" (2) atala azaltzen da eta bertan aukera ezberdinak eskaintzen dira. Gainera, "**Erakutsi taldearen aukera-menua talde-modua duten jardueretan**" laukitxoan (3), taldeak "Ikusgai" edo "Soilik partaideentzat ikusgai" konfiguratuta dauden kasuetan, partaide bat talde batean baino gehiagotan egonez gero, ekarpen bat egiteko edo jarduera batean entregatzeko unean talde hori menu batean ez agertzea ezar daiteke.


Ikastaroa
Ezarpenak
Partaideak
Kalifikazioak
Txostenak
Galdera-bankua
Eduki-bankua
Ikastaro-osaketa
Taldeak
Sortu taldea
1
Adibide ikastaroa: Taldeak
Matrikulazio-gakoa
Egin klik testua idazteko
Talde-partaidetzaren ikusgarritasuna
Ikusgai
2
Soilik partaideentzat ikusgai
Soilik norbere partaidetza ikusgai
Ezkutuan
3
Erakutsi taldearen aukera-menua talde-modua erabiltzen duten jardueretan

# Kalifikazioak

## Aldaketak kalifikatzailearen txostenean


Kalifikatzailearen txosteneko **erabiltzaileak hautatzeko iragazkiak** (1) aldatu egin dira, zereginetako bidalketetako eredu berarekin. Kategoriak zabaltzeko eta tolesteko **menu zabalgarri bat** (2) dago orain. Gainera, zutabeak **tolestu** egin daitezke (3).




## Aldaketak kalifikazioen ezarpenetan

"Kalifikazio-liburuen ezarpenak" taulak aldaketa hauek ditu:

- **Hainbat elementu** (1) hauta daitezke, pantailaren behealdeko "Mugitu" (1.1) aukera erabiliz lekualdatzeko.
- Kategoriak **tolestu** egin daitezke (2).
- **Kategoria-elementuak eta kategoriak gehitzeko aukerak** (3) goialdeko eskuinaldean daude.
- "**Baztertu hutsik dauden kalifikazioak**" (4) "Kalifikazio-liburuaren ezarpenak" taulan ageri da, ezarritako kalkulu motarekin batera.



### Baliogabetutako kalifikazioen marka

"**Baliogabetutako kalifikazioak**" (overridden ingelesez) dagokion jarduerako kalifikazio-formularioan sartu beharrean. kalifikazio txostenean zuzenean gehitzen diren kalifikazioak dira. **Edizioa aktibatu** (1) eta taulan kalifikazio bat aldatzen edo eskuz gehitzen bada, bertsio honetan, kalifikazio hori "baliogabetuta" dagoela erakusten duen marka **edizio-ikono baten** bidez adieraziko da(2).

